**UDALBATZA AKTA**

**2020KO URRIAREN 7KO OHIKO SAIOA**

Soraluzeko herrian, bi mila eta hogeiko urriaren 7an, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Udalbatza aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Veronica Galarraga Izagirre eta Iñaki Rubio Torrientes, Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Roke Akizu Aizpiri eta Jone Alberdi Alvarez zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean elkartu dira, lehenengo deialdiz eta Idazkari lanetan Itziar Azurza Sorrondegui andrea arituz.

**1.-2020KO UZTAILAREN 2KO SAIOAREN AKTA ONARTZEA**.-

Aho batez onartu da 2020ko uztailaren 2ko udalbatza akta.

**2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-**

Ekainaren 25eko 71/2020 zenbakidun dekretutik irailaren 30eko 166/2020 zenbakidun dekretu arteko Alkatetza dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

**3.- 2021 URTEKO ORDENANTZA FISKALAK.**

Iker Aldazabal, Alkate jaunak azaldu du gaia. Euskadiko KPIren erreferentzia abuztuan % -0,4 izan denez, zerga zein tasen izoztea proposatu du orohar. Dena den, hainbat ñabardura ere ageri dira hiru puntuotan:

1) Ondasun higiezinen zerga dela eta, etxebizitza hutsengatik errekargoa ezabatuko da.

**ACTA DEL PLENO**

**SESIÓN ORDINARIA DE 7 DE OCTUBRE DE 2020**

En la localidad de Soraluze, siendo las 19:00 horas del día 7 de octubre de dos mil veinte, previa convocatoria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento las señoras y los señores Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre e Iñaki Rubio Torrientes, Tenientes de Alcalde, y Ramón Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Roke Akizu Aizpiri y Jone Alberdi Alvarez concejales, se reúnen bajo la presidencia del Alcalde D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria, actuando como Secretaria Dña. Itziar Azurza Sorrondegui.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 2 DE JULIO DE 2020.-**

Se aprueba por unanimidad el acta del Pleno de 2 de julio de 2020.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-**

Se da cuenta al Pleno de los decretos comprendidos entre el decreto de Alcaldía número 71/2020, de 25 de junio, y el número 166/2020, de 30 de septiembre.

**3.- ORDENANZAS FISCALES DEL AÑO 2021**

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, expone el tema. Dado que la referencia del IPC de Euskadi en agosto ha sido del -0,4%, propone en general congelar tanto los impuestos como los tasas, pero con matices en los siguientes tres puntos:

1)En el impuesto de bienes inmuebles se suprimirá el recargo por vivienda vacía.

2) Bide publikoen okupazio tasa, batez ere, dokumentalak, zinea egiteagatik badira, tasa igotzea, 4 tramo ezberdin bereiztuz, aurrekontuaren arabera.
3) Garabiaren erabilera tasa 200.-eurotan finkatzea.
4) Hirigintza plangintza eta kudeaketa tresnak izapidetzeagatik tasa ezartzea.

GERTAKARIAK

Soraluzeko ogasun batzordeak 2020ko irailaren 28an aztertu zuen 2021 urteari begira ordenantza fiskalen gaia.

Alkateak, irizpide orokor gisa, bai zerga bai tasa guztiak bere horretan lagatzea proposatu zuen, kontuan izanik, 2020ko abuztuaren “Kontsumo produktuen indizea” (KPI delakoa), -0,4 %koa izan zela Euskadin.

Dena den, zenbait aldaketa eta egokitze txiki egitea komeni zela aipatu zen.

Lehenik, ondasun higiezinen zergan, etxebizitza hutsak izateagatik ezarritako errekargoa ezabatzea proposatu zen.

Bigarrenik, tasak zirela eta, egokitze batzuk hiru tasa mota hauetan egitea proposatu zen.

Lehen egokitzea: udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiteagatik ezartzen den tasa-ordenantzaren baitan: argazki, dokumental, filma etabarren grabazioak baimentzearen ondorioz, bide publikoen okupazioa gauzatzeagatik, m2 eta egun bakoitzagatik ( 2-E-3 epigrafea), honakoa:

** 25.000.-euro arteko aurrekontua arte:

2) Aumentar la tasa de ocupación de las vías públicas, para grabaciones de documentales y películas, diferenciando 4 tramos diferentes, según presupuesto.
3) Fijar la tasa de utilización de la grúa en 200.-euros.
4) Establecimiento de la tasa por la tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión urbanística.

HECHOS

La comisión de hacienda de Soraluze analizó el tema de las ordenanzas fiscales de cara al año 2021 el 28 de septiembre de 2020.

Como criterio general, el alcalde propuso la congelación de todos los impuestos y tasas, teniendo en cuenta que el "índice de productos de consumo" (IPC) de agosto del año 2020 fue del -0,4% en Euskadi.

No obstante, se comentó la conveniencia de realizar algunos pequeños cambios y adaptaciones.

Primero, en el impuesto de bienes inmuebles, se propuso eliminar el recargo impuesto por tener viviendas vacías.

En segundo lugar, en relación con las tasas, se propuso realizar algunos ajustes en estos tres tipos de tasas.

Primera adaptación: dentro de la ordenanza de tasas por utilización privativa del dominio público municipal: como consecuencia de la autorización de grabaciones fotográficas, documentales, películas, etc., por ocupación de vías públicas, por m2 y día (epígrafe 2-E-3):
** Hasta un presupuesto de hasta 25.000.-

2,5.-euro.
** 50.000.-euro arteko aurrekontua arte: 3.-euro.
** 100.000.-euro arteko aurrekontua arte: 4.-euro.
** 100.000.-eurotik gorako aurrekontua: 5.-euro.
Aurrekontua osotasunean izango da kontuan tasa ezartzerakoan.

Bigarren egokitzea: zerbitzu publikoak eta jarduera administratiboak eskaintzeagatik ezartzen den tasa- ordenantzaren baitan, garabiaren zerbitzua erabiltzeagatik: 200.-euroko tasa (ordenantzaren 1-E-2 epigrafeko tarifa).

Hirugarren egokitzea: zerbitzu publikoak eta jarduera administratiboak eskaintzeagatik ezartzen den tasa-ordenantzaren baitan, hirigintza arloko izapidetzak burutzeagatik (1-G-B epigrafea) honakoak:

-Hirigintza kontsultak (kasu zehatz bati buruz, obra partikularrak, hirigintza planak, jarduerak, landaguneko segregazioak, hiriguneko partzelazioak eta antzekoak direla eta, informazio tekniko juridikoa ematea): 60.-euro.

- Hiri lurzoruko partzelazio lizentziak, 100 euro.

- Landa guneko segregazio, agrupazio etab. lizentziak:
** Eratu diren lursail berriak 15.000.-m2 -tik beherakoak badira: 0,15.-euro/m2 eta gehienez, 75.-euro.
** Eratu diren lursail berriak 15.000.-m2tik goragokoak badira: 0,30.-euro/m2 eta gehienez, 100.-euro.

- Plan orokorraren aldaketak, Plan bereziak eta plan partzialak izapidetzea

2,5.- euros.
** Hasta un presupuesto de hasta 50.000.- 3.- euros.
** Hasta un presupuesto de hasta 100.000 euros: 4.-euros
** Presupuesto superior a 100.000 euros: 5.-euros.
El presupuesto se tendrá en cuenta en su conjunto a la hora de establecer la tasa.

Segunda adaptación: por la utilización del servicio de grúa dentro de la ordenanza de tasas por prestación de servicios públicos y actividades administrativas: tasa de 200.-euros (tarifa epígrafe 1-E-2 de la ordenanza).

Tercera adaptación: por la realización de trámites urbanísticos en el marco de la ordenanza de tasas por prestación de servicios públicos y actividades administrativas (epígrafe 1-G-B):

- Consultas urbanísticas (información técnica jurídica sobre un caso concreto, obras particulares, planes urbanísticos, actuaciones, segregaciones en el medio rural, parcelaciones en el casco urbano y similares): 60- euros.

- Licencias de parcelación en suelo urbano, 100 euros.

- Licencias de segregación, agrupación, etc. en zona rural:
** En el caso de parcelas de nueva creación inferiores a 15.000.-m2: 0,15.-euros/m2 con un máximo de 75 euros.
** En el caso de parcelas de nueva creación superiores a 15.000.-m2: 0,30.-euros/m2 con un máximo de 100.-euros.

– Tramitación de modificaciones del plan general, planes especiales y planes

(sustatzaile pribatua): 3.000 euro.

- Birpartzelazioak, kontzertazio hitzarmenak, kontzertazio proiektuak, kontzertazio juntak eratu eta beraien estatutuak eta oinarriak eta hiri-lurzorua mugatzeko proiektuak izapidetzea: 3.000 euro.

- Xehetasun-azterketak eta Urbanizazio-proiektuak, PAU izapidetzea: 2.500.-euro. Salbuetsiko dira, igogailuak jartzeko izapidetu behar izan direnean agiri hauek.

- Aurreko atalean aipatu ez diren bestelako hirigintza-espedienteak (exekuzio aginduak, ruina, zigor espedienteak etab.) izapidetzea: 300.-euro.

Kontuak eta Ogasuneko batzorde informatzaileak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

BAT: 2020 urteko prezioak, tasa, kuotak eta tarifak bere horretan uztea 2021 urteari begira, ordenantza fiskal guztietan, bai zerga bai tasak direla eta.

BI: 2021 urteari begira ondasun higiezinen zerga ordenantzan, etxebizitza hutsen kasuan ezarrita dagoen errekargoa ezabatzea.

HIRU: 2021 urteko ordenantza fiskal hauetan egokitzeak onartzea:

2.1- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiteagatik ezartzen den tasa-ordenantzaren baitan, 2-E-3 epigrafean,

parciales (promotor privado): 3.000 euros.

- Reparcelaciones, convenios de concertación, proyectos de concertación, constitución de juntas de concertación y tramitación de sus estatutos y bases y proyectos de delimitación del suelo urbano: 3.000 euros.

- Estudios de Detalle y Proyectos de Urbanización, Tramitación Pau: 2.500.-euro. Exención en relación a la tramitación de la presente documentación para la instalación de ascensores.

- Tramitación de otros expedientes urbanísticos distintos a los mencionados en el apartado anterior (órdenes de ejecución, ruina, expedientes sancionadores, etc.): 300.- euros.

A propuesta de la Comisión informativa de cuentas y hacienda **EL PLENO, POR UNANIMIDAD**, **ACUERDA**:

UNO: Aprobar la congelación de los precios, tasas, cuotas y tarifas del año 2020 para el año 2021 en todas las ordenanzas fiscales, tanto por impuestos como por tasas.

DOS: Aprobar la eliminación del recargo establecido en la ordenanza fiscal de bienes inmuebles para el año 2021 en el caso de las viviendas vacías.

TRES: Aprobar las adaptaciones de las siguientes ordenanzas fiscales del año 2021:

2.1- En el marco de la Ordenanza de Tasas por la utilización privativa del dominio público municipal, en el epígrafe

filma, dokumental zein argazki saioen baimenaren ondoriozko okupazioagatik, batzordeak proposatu duen tramo eta tarifetan.

2.2.- Zerbitzu publikoak eta jarduera administratiboak eskaintzeagatik ezartzen den tasa- ordenantzaren baitan, ondorengo ataletan:

** 1-E-2 epigrafeko tarifa, garabia:200.-euro.
** 1-G-B epigrafeko tarifak, hirigintza tresnak eta agiriak izapidetzea.
-Hirigintza kontsultak: 60.-euro

- Hiri lurzoruko partzelazio lizentziak, 100 euro

-Landa guneko segregazio, agrupazio etab. lizentziak:
** Eratu diren lursail berriak 15.000.-m2 -tik beherakoak badira: 0,15.-euro/m2 eta gehienez, 75.-euro.
** Eratu diren lursail berriak 15.000.-m2tik goragokoak badira: 0,30.-euro/m2 eta gehienez, 100.-euro.

- Plan orokorraren aldaketak, Plan bereziak eta plan partzialak izapidetzea (sustatzaile pribatua): 3.000 euro.

- Birpartzelazioak, kontzertazio hitzarmenak, kontzertazio proiektuak, kontzertazio juntak eratu eta beraien estatutuak eta oinarriak eta hiri-lurzorua mugatzeko proiektuak izapidetzea: 3.000 euro.

- Xehetasun-azterketak eta Urbanizazio-proiektuak, PAU izapidetzea: 2.500.-euro. Salbuetsiko dira, igogailuak jartzeko izapidetu behar izan direnean agiri hauek.

2-E-3, por la ocupación derivada de la autorización de películas, documentales o sesiones fotográficas, en los tramos y tarifas propuestas por la Comisión.

2.2.- Dentro de la ordenanza de tasas por prestación de servicios públicos y actividades administrativas, en los siguientes apartados

** Tarifa epígrafe 1-E-2 grúa 200.-euro.
** Tramitación de tarifas, instrumentos urbanísticos y documentos del epígrafe 1-G-B
- Consultas urbanísticas: 60-euros

- Licencias de parcelación en suelo urbano, 100 euros

- Licencias de segregación, agrupación, etc. en zona rural:
** En el caso de parcelas de nueva creación inferiores a 15.000.-m2: 0,15.-euros/m2 con un máximo de 75 euros.
** En el caso de parcelas de nueva creación superiores a 15.000.-m2: 0,30.-euros/m2 con un máximo de 100.-euros.

- Tramitación de modificaciones del plan general, planes especiales y planes parciales (promotor privado): 3.000 euros.

- Reparcelaciones, convenios de concertación, proyectos de concertación, constitución de juntas de concertación y tramitación de sus estatutos y bases y proyectos de delimitación del suelo urbano: 3.000 euros.

- Estudios de Detalle y Proyectos de Urbanización, Tramitación Pau: 2.500.-euro. Exencionan en relación a la tramitación de la presente documentación para la instalación de

ascensores.

-Aurreko atalean aipatu ez diren bestelako hirigintza-espedienteak (exekuzio aginduak, ruina, zigor espedienteak etab.) izapidetzea: 300.- euro.

- Tramitación de otros expedientes urbanísticos distintos a los mencionados en el apartado anterior (órdenes de ejecución, ruina, expedientes sancionadores, etc.): 300.- euros.

Unai Larreategi zinegotzi jaunak, EH-Bildu udal taldeko kideak, bere iritzia plazaratzen du:
Irizpide orokorrekin ados dago. Zehazki, hirigintza plangintza eta kudeaketa tresnen izapidetzagatik ezarritako tasa, Gipuzkoako herrialde gehienetan dago, eta logikoa da Idazkaritzatik planteatutako gai hau.
Ondasun higiezinen zergan, etxebizitza hutsaren errekargoa ezabatzea dela eta honako iritzia eman du: duela 6 urte abiatutako bideari amaiera ematen zaiola. Jatorrian xede finalista bat zuela tasa honek, hau da, etxebizitza politikak egitea, baina eginetan ez da horretarako burutu jasotako dirua. Horregatik, ados daude tasa hau ezabatzean eta horretaz gain, laster, etxebizitza legea garatuko duen Eusko Jaurlaritzako dekretuak Euskadi osorako baldintza orokorrak ezarriko dituelako. Azken gogoeta bezala adierazi du Soraluzeko udalerrian etxe zaharren problematika dela larriena.

El concejal Sr. Unai Larreategi, miembro del grupo municipal EH-Bildu, expone su opinión:
Está de acuerdo con los criterios generales. La tasa establecida por la tramitación de los instrumentos de planificación y gestión urbanística, se establece en la mayoría de los municipios de Gipuzkoa, y es lógica esta cuestión planteada desde Secretaría.
Sobre la eliminación del recargo a la vivienda vacía en el impuesto de bienes inmuebles opina que se pone fin al camino emprendido hace 6 años; originariamente el fin de esta tasa era hacer política de vivienda, pero el dinero recaudado no se ha empleado para ello.
Por ello, están de acuerdo en eliminar esta tasa, además en breve, el decreto del Gobierno Vasco que desarrollará la ley de vivienda establecerá las condiciones generales para todo Euskadi.
Como última reflexión señala que lo más grave es la problemática de la antiguedad de las casas en Soraluze.

Patricia Borinaga andreak, alkate orde eta PSE-EEko udal taldearen ordezkariak adierazi du:
Ideologikoki ondasun higiezinen zergan, etxebizitza hutsaren errekargoa jartzearen aldekoa da. Baina, kontuan izan behar da etxebizitza legea garatuko duen Eusko Jaurlaritzako dekretua datorren urtean onartuko dela. Gaur egun, udalerri bakoitzak bere kasa bere salbuespen bereziak jartzearen ondorioz, herritarren

Dña. Patricia Borinaga, teniente de alcalde y representante del grupo municipal del PSE-EE, señala que Ideológicamente en el impuesto de bienes inmuebles, es partidaria del recargo sobre la vivienda vacía. Pero, hay que tener en cuenta que el decreto del Gobierno Vasco que desarrollará la ley de vivienda se aprobará el próximo año. En la actualidad, como consecuencia de que cada municipio

artean ezberdintasunak sortzen direla, eta nahiz eta, berez, xede jakin bat izan errekarguak, ez zela betetzen gaur egun funtzio hori. Eta hobe izango dela Eusko Jaurlaritzaren dekretuak irizpide bakar eta orokorra finkatzea udalerri eta herritar guztientzat.

por su cuenta establece sus excepciones, surgen diferencias entre la ciudadanía, y aunque en realidad se trata de recargos con un fin determinado, actualmente no se cumplía dicha función. Por ello será mejor que el decreto del Gobierno Vasco fije un criterio único y general para todos los municipios y ciudadania.

**<u>4.- AUTO TAXI TARIFA 2021 URTERAKO ONARTZEA.-</u>**

GERTAKARIAK

BAT: AGITAX Gipuzkoako taxisten elkarteak 2020ko irailean jakinarazi zion Udalari 2021 urteari begira ez zela komeni tarifak igotzea COVID 19aren ondorioz.

BI: Soraluzeko Ogasun batzordeak 2020ko irailaren 28an ontzat eman zuen AGITAX elkartearen iritzia.

Kontuak eta ogasuneko Batzorde Informatzaileak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

BAT: 2021 urteari begira auto taxien tarifa ez igotzea.

BI: Argitaratzea Udalbatzaren akordioa udal web orrian, gardentasun atarian.

**<u>4.- APROBACIÓN DE LA TARIFA DE AUTO TAXIS PARA EL AÑO 2021.-</u>**

HECHOS

UNO: La asociación de taxistas de Gipuzkoa AGITAX comunicó al Ayuntamiento en septiembre de 2020 que de cara al año 2021 no era conveniente subir las tarifas debido al COVID 19.

DOS: La Comisión de Hacienda, el 28 de septiembre de 2020, dio el visto bueno al criterio de la asociación de AGITAX.

A propuesta de la Comisión Informativa de cuentas y hacienda **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

UNO: No incrementar la tarifa de auto taxi de cara al año 2021.

DOS: Publicar el acuerdo del Pleno en la página web municipal.

**<u>5.- BEHIN BETIKO ONARTZEA “14-OLALDEA” EREMUAREN HIRI ANTOLAKETA PLAN BEREZIA.-</u>**

Iker Aldazabal Alkate jaunak azpimarratu nahi izan du uztaileko Udalbatzan esan zuela Pascual Churruca hitzarmenari eta Olaldea eremuaren garapenari, biei, baiezkoa emango ziela. Eta hau dela horren froga. Santa Ana biltegitik OLEAko zubiraino doa. 100 etxebizitza (hiru

**<u>5.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL AMBITO “14-OLALDEA”.-</u>**

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal ha querido subrayar que en el Pleno de julio dijo que iba a aceptar el convenio de Pascual Churruca y el desarrollo de la zona Olaldea; y que esto es la prueba de ello. Se extiende desde el almacén de Santa Ana hasta el puente de OLEA. 100

erregimenetan, libreak, tasatuak eta babes ofizialekoak). Lokal komertzialak - 300 m2-ko azalerakoak - jasoko ditu Udalak. Duela bi urtetik, hau da, 2018 urtetik, geldituta egon izan da izapidetza URA – ur agentziaren- txostena falta zelako. 2020 urtean eman dutenez aldeko iritzia, jarraitu ahal izan da izapideekin. Eta horregatik, ekarri da gaia Udalbatzara. Gaurko saioan alegazioei erantzutea eta plan bereziaren testu bateratuari behin betiko onarpena ematea dagokio Udalbatzari. Herriko degradazio gune bat zaharberritzeko beste urrats bat da hau. Azkenik aipatu du irailean zehar garaje, etxebizitza eta pabiloi industrialen jabeekin bilerak egin dituztela, planaren berri emateko eta kaltetuei informazioa emateko.

viviendas (libres, tasadas y de protección oficial, en los tres regímenes). Locales comerciales, de 300 m2 de superficie para el Ayuntamiento. Desde hace dos años, es decir, desde el año 2018, ha estado paralizada la tramitación por falta del informe de URA – Agencia del Agua –. Dado que en el año 2020 se ha informado favorablemente, se ha podido continuar con los trámites y por ello, se trae el tema a Pleno. En la sesión de hoy corresponde al Pleno responder a las alegaciones y aprobar definitivamente el texto refundido del plan especial. Este es un paso más en la restauración de una zona degradada. Por último, señala que durante el mes de septiembre ha mantenido reuniones con propietarios de garajes, viviendas y pabellones industriales a fin de dar a conocer en que consiste el plan e informar a las personas afectadas.

AURREKARIAK

BAT: Soraluzeko Udalaren Plan orokorra behin betiko onartu zuen Udalbatzarrak 2016ko azaroaren 22an. Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2017ko abenduaren 4ean argitaratu zen akordio hori.

BI: Plan orokor horrek “ OLALDEA” izeneko eremua aurrikusi zuen.

HIRU: OLALDEA eremuari dagokion hiri antolakuntza plan bereziaren hasierako onarpena 2018ko maiatzaren 14ean eman zuen Tokiko Gobernu batzarrak.

LAU: Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2018ko maiatzak 30ean argitaratu zen hasierako onarpen akordio hori eta 45 eguneko informazio publiko aldia zabaldu zen.

ANTECEDENTES

UNO: El Pleno del Ayuntamiento de Soraluze aprobó definitivamente el 22 de noviembre de 2016 el Plan General. Dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 4 de diciembre de 2017.

DOS: Dicho plan general preveía la zona denominada "Olaldea".

TRES: La Junta de Gobierno Local aprobó el 14 de mayo de 2018, con carácter inicial, el Plan Especial de Ordenación urbana del área de OLALDEA.

CUATRO: Este acuerdo de aprobación inicial se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 30 de mayo de 2018 y se abrió un periodo de información pública de 45 días.

GERTAKARIAK

BAT: Informazio publiko aldian honako agiriak jaso izan dira:

Batetik, herritarren bi alegazio aurkeztu ziren (JCVA eta IAA interesdunek aurkeztuta).

Bestetik, ondorengo txosten sektorialak jaso dira izapidetzaren barruan:

- Ingurumen estrategia txostena: 2018ko uztailak 20.
- URA- Euskal agentziaren txostena: 2020ko maiatzak 20.
- Eusko Jaurlaritzako osasun sailaren eta IHOBEren txostenak.

BI: 2020ko ekainean Plan Bereziaren idazle izan diren arkitektu taldeak aurreko alegazio zein idatzien inguruan txostena eman du eta 2020ko abuztuan testu bateratu bat aurkeztu du.

HIRU: Soraluzeko hirigintza batzordeak 2020ko irailaren 9an aztertu zituen aurreko agiri guztiak eta Udalbatzari proposatu dio honakoa:

Batetik, informazio publiko aldian aurkeztu diren bi alegazioei erantzun diezaiola, 2020ko ekaineko txostenean ageri den eran. Eta txosten horretako motibazioa izan dadila alegazioak ukatzeko arrazoia.

Bestetik, behin betiko onartu dezan “OLALDEA” eremuaren hiri antolakuntza plan bereziaren testu bateratua.

Hirigintza Batzorde Informatzaileak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

HECHOS

UNO: Durante el periodo de información pública se han recibido los siguientes documentos:

Por un lado, se presentaron dos alegaciones ciudadanas (presentadas por los interesados JCVA e IAA).

Por otra parte, dentro de la tramitación se han recibido los siguientes informes sectoriales:

- Informe de estrategia ambiental: 20 de julio de 2018.
- Informe de la Agencia Vasca del Agua, URA, 20 de mayo de 2020.
- Informes del Departamento de Salud del Gobierno Vasco e IHOBE.

DOS: El equipo de arquitectos redactores del Plan Especial en junio de 2020 ha informado sobre las alegaciones y escritos anteriores y ha presentado un texto refundido en agosto de 2020.

TRES: La comisión de urbanismo de Soraluze analizó todos los documentos anteriores el 9 de septiembre de 2020 y propone al Pleno:

Por un lado, que de respuesta a las dos alegaciones presentadas durante el periodo de información pública, con el contenido que consta en el informe de junio de 2020. Y que la razón de la denegación de las alegaciones sea la motivación plasmada en dicho informe.

Por otro, que apruebe definitivamente el texto refundido del plan especial de ordenación urbana del ámbito "OLALDEA".

A propuesta de la Comisión Informativa de urbanismo **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

Lehenik, informazio publiko aldian aurkeztu ziren bi alegazioei erantzuna ematea, arkitektu aholkulariek 2020ko ekainean egindako txostenean jarritako edukiarekin. Hau da, orohar ukatu egin da alegazioen idatzian eskatutakoa, baina ontzat eman da, Olea industri fabrikaren egoera "antolakuntzaz kanpo" izatetik "plangintzarekin ez-konforme" erregimenera pasatzea, PAU agiria (urbanizazio jardueraren programa) onartu bitartean.

Primero. Dar respuesta a las dos alegaciones presentadas en el periodo de información pública, en el sentido reflejado en el informe de junio de 2020 de los arquitectos asesores. Es decir, en general, se deniega lo solicitado en el escrito de alegaciones, pero, se acepta el cambio de régimen de la fábrica industrial "Olea" de "fuera de ordenación" a "disconforme con el planeamiento", en tanto se apruebe el PAU (Programa de Actuación Urbanizadora).

Bigarrenik, behin betiko onarpena eman zion Soraluzeko Hirigintza plan orokorreko "14-Olaldea" izeneko eremuaren hiri antolakuntzako plan bereziaren testu bateratuari, jarraian atxikitu den zati normatiboarekin, Euskadiko lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legearen 89 artikuluak ezarritakoari jarraiki.

Segundo. Aprobar Definitivamente el texto refundido del Plan Especial de Ordenación Urbana relativa al ámbito urbanístico "14-Olaldea" del plan general de ordenación de Soraluze, con la parte normativa de las normas urbanísticas que se publican a continuación de conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de Euskadi.

HIrugarrenik, behin betiko onartutako agiria Foru Aldundiko Hirigintza plangintzako erregistro administratibora bidaltzea erabaki zuen, eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean zein zabalduen dagoen egunkarietan argitaratzea

Tercero. Remitir el documento aprobado al registro administrativo de Planificación Urbanística de la Diputación Foral y publicar la resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y el periódico o periódicos de mayor difusión en el territorio histórico.

Roke Akizu, zinegotzi jaunak, EH-Bildu udal taldeko kideak bere iritzia plazaratzen du:
Hirigintza ezaugarri nagusiez gain, garrantzitsua da azpimarratzea zergatik den estrategikoa Olaldearen berrantolaketa hau. EH-BILDU taldea oso pozik dago erabaki honekin. Gaur egun, "infra-etxebizitza" egoera asko dago udalerrian eta gainera, pertsona adinduak igogailu gabeko etxeetan eta

Roke Akizu, concejal, miembro del grupo municipal EH-Bildu, expone su opinión:
Además de las principales características urbanísticas, es importante destacar por qué esta reordenación de Olaldea es estratégica. El grupo EH-Bildu está muy satisfecho con este acuerdo. En la actualidad, existen muchas situaciones de "infraviviendas" en el municipio y, además, las personas mayores viven en

eskailera askoko hiri-inguruetan bizi dira, eta etxebizitza sozialaren garrantzia azpimarratu beharra dago herritarren artean. Alkateak adierazitako “Olaldea bai Pascual Churruca ere bai” leloaren aurrean zalantzak dituela, Eusko Jaurlaritzaren diru inbertsioaz.

casas sin ascensor y en entornos urbanos con muchas escaleras, se ha de destacar la importancia de la vivienda social entre la población. Tiene dudas ante el lema expresado por el alcalde "si a Olaldea si a Pascual Churruca", en relación a la inversión económica del Gobierno Vasco

Patricia Borinaga andreak, alkate orde eta PSE-EEko udal taldearen ordezkariak adierazi du:
Denak gaude pozik, izan ere, Olaldea eremuaren birgaitzea lehentasun gisa baitzuten alderdi politiko guztiek. Dena den, errealista izanik, Soraluzeko Udala bakarrik eta bere kasa ez da gai izango hiri-eremu hau garatzeko, eta kanpo erakundeen finantziazioa eskuratu beharko da. Horregatik, da hain zuzen ere, garrantzitsua eta ezinbestekoa hiru alderdi politikoak ados egotea ikuspegi bateratu bat izanik. Bere ustez, epe luzerako proiektu bat da hau.

Dña. Patricia Borinaga, teniente de alcalde y representante del grupo municipal del PSE-EE, señala que todos estamos satisfechos, ya que la rehabilitación del área de Olaldea era una prioridad para todos los partidos políticos. No obstante, siendo realista, el Ayuntamiento de Soraluze por sí solo no será capaz de desarrollar este ámbito urbano y habrá que recurrir a la financiación de entidades externas. Por eso, es precisamente importante e imprescindible que los tres partidos políticos estemos de acuerdo teniendo una visión conjunta. En su opinión, este es un proyecto a largo plazo.



**6.- GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BARNE PROTOKOLOA ONARTZEA.-**

**6. APROBACION DEL PROTOCOLO INTERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GENERO.-**

Patricia Borinaga andreak, alkate orde eta PSE-EEko udal taldearen ordezkariak laburbildu du bi ildo nagusi dituela protokolo honek. Batetik, formazio eta informazio iturri da udal enplegatuentzat. Bestetik, udal erakundearen barruan, kasuren bat gertatuz gero, jarraitu beharreko urratsak zeintzuk diren zehaztu ditu.

Patricia Borinaga, teniente de alcalde y representante del grupo municipal del PSE-EE, resume que este protocolo tiene dos líneas principales. Por un lado, es fuente de formación e información para las empleadas municipales. Por otro, detalla cuáles son los pasos a seguir en el seno de la institución municipal en caso de que se produzca algún caso.

Parekidetasuna eta aniztasuneko Batzorde Informatzaileak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**
BAT: Genero indarkeriaren aurkako barne protokoloa onartzea.

A propuesta de la Comisión Informativa de igualdad y diversidad **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

UNO: Aprobar el protocolo interno contra la violencia de genero.

**7.- III. BERDINTASUN PLANAREN ONARPENA.**

Patricia Borinaga andreak, alkate orde eta PSE-EEko taldeko zinegotziak azaldu du gaia. 2020-2023 urtetarako finkatu dira jarraibide nagusiak, udal erakunde barruan, transbersalki bete ahal izateko. Berdintasun saileko teknikari aholkulariak egingo du jarraipena. Izapidetza arraroa izan dela aipatu du, izan ere, hasiera batean, metodologia partehartzailea jarraitu arren, ez baitzuen uste zen emaitzarik eman partaidetza aldi honek. Horregatik, web orri bidez ireki zen parte hartzeko aukera, ondoren.

Parekidetasuna eta aniztasuneko Batzorde Informatzaileak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

BAT: III. Berdintasun plana onartzea.

Maite Quintanilla andreak, EH BILDU taldeko zinegotziak plana egokia dela deritzo. Hala ere, herritarren partaidetza hanka motz gelditu dela onartu du. Erronka nagusia, orain, planifikatutakoa praktikan jartzea da, alegia, "planaren sozializazioa". Teknikariek planaren ezagutza izatea garrantzitsua delakoan dago. Nahiz eta, arduradun politikoek zeresana baduten, baliabide ekonomikoak ahalbideratuz bereziki. Udal enplegatuei zuzendutako plana izanik ere, udal politikariek babesa adierazi nahi diete udal langileei.

**8.- SORALUZEKO UDALAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUTZAT HARTZEA DEBEMEN, DEBABARRENEKO LANDA GARAPENEKO ELKARTEA.-**

**7. APROBACION DEL III PLAN DE IGUALDAD-.**

Dña. Patricia Borinaga, Teniente Alcalde y concejal del Grupo PSE-EE, expone el tema. Se fijan las directrices generales para los años 2020-2023, dentro de la institución municipal, para su cumplimiento transversal. El seguimiento lo realizara la técnica asesora del departamento de igualdad. Comenta que la tramitación ha sido rara, ya que en un principio, a pesar de seguir una metodología participativa, no se consiguieron resultados. Por ello posteriormente, se abrió la posibilidad de participar a través de la página web.

A propuesta de la Comisión Informativa de igualdad y diversidad **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

UNO: Aprobar el III plan de Igualdad.

Dña. Maite Quintanilla, concejala del grupo EH BILDU, considera adecuado el plan. No obstante, ha reconocido que la participación ciudadana se ha quedado corta. El principal reto ahora es poner en práctica lo planificado, la "socialización del plan". Se considera importante que los técnicos tengan conocimiento del plan. Aunque los responsables políticos tienen algo que decir, especialmente facilitando los recursos económicos. Aun siendo un plan dirigido a los y las trabajadoras municipales, los políticos municipales quieren mostrarles su apoyo.

**8.- DECLARAR MEDIO PROPIO PERSONIFICADO DEL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE A DEBEMEN, AGENCIA DE DESARROLLO RURAL DEL BAJO DEBA**

GERTAKARIAK

BAT: DEBEMEN Debabarreneko landa garapen elkartea da eta bere helburu nagusia landa eremuan hainbat ekimen eta ekintza sustatzea da. Besteak beste, landa bideak garbitu, feriak antolatu, listor asiatikoaren kontrola.

BI: DEBEMEN elkarteak txosten juridikoa helerazi zion Udalari, medio propio bezala izendatua izateko oinarri juridikoak eta abantailak jasoz, sektore publikoaren kontratazio legediari begira eraginak izan ditzan.

Bereziki, txostenean adierazi denez, elkarte honek udalaren zerbitzuak gauzatzen dituen arren aspaldidanik, elkartea medio propio gisa izendatuz gero, lan bakoitzerako kontratazio bat egin ordez edota hitzarmena urtez urte gauzatu ordez, “aktuazio enkargu” izaera juridikoa izango lukete zerbitzu-exekuzio horiek. Lankidetza bertikal bat litzateke eta sinplifikazioa eragingo luke teknika juridiko honek kontratazio ikuspegitik.

HIRU: Soraluzeko ingurumen batzordeak 2020ko irailaren 9an ontzat eman zuen DEBEMEN medio propio gisa izendatzeko proposamena.

HECHOS

UNO: DEBEMEN es la asociación de desarrollo rural del Bajo Deba y su objetivo principal es promover diversas iniciativas y acciones en el ámbito rural. Entre otros, limpieza de caminos rurales, organización de ferias, control de la avispa asiática.

DOS: La asociación DEBEMEN remitió un informe jurídico al Ayuntamiento, recogiendo los fundamentos jurídicos y ventajas para su designación como medio propio, a fin de que tenga efectos de cara a la legislación de contratación del sector público. En particular, se señala en el informe que, a pesar de que esta asociación lleva a cabo los servicios municipales desde hace años, si la asociación fuera designada como medio propio, en lugar de realizar una contratación para cada trabajo o ejecutar el convenio año tras año, estas ejecuciones de servicios tendrían la naturaleza jurídica de "encargos de actuación". Se trataría de una colaboración vertical y esta técnica jurídica implicaría una simplificación de desde el punto de vista de la contratación.

TRES: La Comisión de medioambiente, el 9 de setiembre de 2020, dio el visto bueno al criterio de DEBEMEN en relación con la calificación como medio propio.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa: Sektore publikoaren kontratuen 9/2017 legeak 31.a) artikuluan lankidetza bertikal aukera jaso du, “ baliabide propio pertsonifikatu” figura dela medio, “enkargu” bidez.

FUNDAMENTOS JURIDICOS

Primero: la Ley 9/2017 de contratos del sector público contempla en su artículo 31.a) la posibilidad de colaboración vertical a través de la figura de "medio propio personificado" mediante "encargo".

Bigarrena: Sektore publikoaren kontratuen 9/2017 legeak 32.4 artikuluan ezarri ditu horretarako baldintzak. Besteak beste, bost baldintza hauek:
1.- Lehen baldintza: udalak elkarteari emandako enkarguen gain kontrol ahalmena izatea, udal erakundearen barruko unitate, sail edo zerbitzuen gainean ezarri ohi denaren antzera edo neurri paretsuan.

2.- Bigarren baldintza: elkartearen jardueraren % 80-a "botere adjudikatzaileak edo esleitzaileak" emandako enkarguak izatea.
3.- Hirugarren baldintza: elkartearen kapital soziala osotasunean titularitate publikokoa izatea.
4.- Laugarren baldintza: elkarteak bere estatutuetan adieraztea udalaren " baliabide propio pertsonifikatu" izaera eta kontratazio plataforman argitaratzea.
5.- Bosgarren baldintza: udalak, "botere esleitzaile" izanik, adostasuna edo baimena ematea.

Segundo: la ley 9/2017 de contratos del sector público establece en su artículo 32.4 las condiciones para ello. Entre otras, estas cinco condiciones:
1.- Primera condición: que el Ayuntamiento tenga capacidad de control sobre los encargos realizados a la asociación, de forma análoga o parecida a la que se establece habitualmente sobre las unidades, departamentos o servicios del ente municipal.
2.- segundo requisito: que el 80% de la actividad de la asociación sea por encargo del "poder adjudicador ".
3.- Tercera condición: que el capital social de la asociación sea íntegramente de titularidad pública.
4.- Condición cuarta: que la asociación señale en sus estatutos el carácter de "medio propio personificado" del ayuntamiento y su publicación en la plataforma de contratación.
5.- Condición quinta: consentimiento o autorización del Ayuntamiento, en su calidad de "poder adjudicador".

UDALKIDEEN IRITZIAK

Iker Aldazabal Basauri, Alkate jaunak eta EAJ-PNVko ordezkariak, honakoa adierazi du: batetik, teknika juridiko honen bidez malgutasuna eman nahi zaio Debemen elkarteari kontratazioak egiterako garaian. Eta bestetik, adierazi nahi da, babesa duela udalaren aldetik elkarteak, COVID19aren osasun pandemiak eragindako garai latz hauetan, bertako langileak ERTEn egonik eta urteroko " Gaztañerre" azoka bertan behera gelditu dela kontuan izanik.

OPINIONES DE LAS PERSONAS CORPORATIVAS MUNICIPALES

D. Iker Aldazabal Basauri, Alcalde y representante de EAJ-PNV, señala, por un lado, que con esta técnica jurídica se pretende dar flexibilidad a la asociación Debemen a la hora de realizar las contrataciones. Pero, por otro lado, se quiere señalar que la asociación cuenta con el apoyo del Ayuntamiento en estos tiempos difíciles derivados de la pandemia sanitaria del COVID 19, en los que las personas trabajadoras se encuentran en ERTE y se ha suspendido la feria anual "Gaztañerre".

Roke Akizu jaunak, EH BILDU taldearen zinegotziak, hauxe azaldu du:

El Sr. Roke Akizu, concejal del Grupo EH BILDU, comenta la importancia de poner

garrantzitsua da DEBEMEN elkartea balorean jartzea. Bereziki, gogorarazi du Soraluzeko udala bere eraketan aintzindaria izan zela. Bere izaera komarkala onuragarria dela deritzo. Gainera, elkarteari errekonozimendu hau egitean agerian utzi nahi da " lehen sektorea" ez dela bigarren mailakoa Soraluzeko Udalarentzat. Eta pizgarria izango dela " medio propioaren" izendapen hau lehen sektoreko proiektu berriak abiatzeko.

en valor la asociación DEBEMEN. En particular, ha recordado que el Ayuntamiento de Soraluze fue pionero en su constitución. Considera que su carácter comarcal es beneficioso. Además, al hacer este reconocimiento a la asociación se quiere poner de manifiesto que "el sector primario" no es de segundo nivel para el Ayuntamiento de Soraluze. Y que este nombramiento como "medio propio" será un incentivo para iniciar nuevos proyectos del sector primario.

Ingurumena eta landa garapeneko Batzorde Informatzaileak proposatuta**, UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

A propuesta de la Comisión Informativa de medio ambiente y desarrollo rural **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

BAT: DEBEMEN, Debabarreneko landa garapen elkartea, Soraluzeko Udalaren medio propio gisa izendatzea.

UNO: Declarar a DEBEMEN, la asociación de desarrollo rural del Bajo Deba, como medio propio del Ayuntamiento de Soraluze.



BI: Interesdunari Udalbatzaren akordio hau jakinaraztea.

DOS: Notificar a la entidad interesada el presente Acuerdo del Pleno

**9.- ESKARI ETA GALDERAK.**

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Ondorengo eskari eta galderak egin dituzte jarraian izendatutako batzarkideek:

Se formulan los siguientes ruegos y preguntas por parte de las personas corporativas que se citan:

Unai Larreategi zinegotzi jaunak, EH-Bildu udal taldeko kideak, zahar egoitza edo erresidentzien inguruan Udalak bere garaian Udalbatzan onartutako mozioa dela eta, erantzunik jaso ote den Gipuzkoako Foru Aldunditik. Izan ere, 10 hilabete ondoren, gogorarazi beharko zaio eskari hura Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde publiko arteko harremanetan erantzun bat jasotzea logikoa baita. Iker Aldazabal, Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak

El concejal Unai Larreategi, miembro del grupo municipal EH-Bildu, sobre si se ha recibido respuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa con motivo de la moción aprobada en su día por el Ayuntamiento en la Corporación municipal en relación con las residencias de ancianos. 10 meses después, habrá que recordarle la petición realizada a la Diputación Foral de Gipuzkoa, porque es lógico que en las relaciones entre instituciones públicas se reciba una respuesta. El Sr. Iker Aldazabal,

erantzun du jarraipena egingo zaiola gaiari.

Eta beste gairik ezean eta hogei orduak direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat eman da.

Hori guztia hala izan dela ziurtatu dut.

miembro del grupo municipal EAJ-PNV, responde que se va a hacer un seguimiento del tema.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las veinte horas, de orden de la Presidencia se levanta la sesión.

De todo lo cual certifico.

Idazkari-Kontuhartzaileak